

# BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 1806

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 15ekoa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen 2023ko martxoaren 8ko Akordioa, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarrenenez aldatzen duen abenduaren 15eko 13/2022 Legeari buruzkoa.*

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusitako akordioa lortuta, eta artikulua horren c) letran ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen akordio bat, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarrenenez aldatzen duen abenduaren 15eko 13/2022 Legeari buruzkoa (ikus eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 15a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,  
SABINO TORRE DíEZ.

## ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA-BATZORDEA

Akordioa, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, Kiroleko Dopinaren aurkako Legea bigarren aldiz aldatzen duen abenduaren 15eko 13/2022 Legeari buruzkoa.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak akordio hau egin du:

1.– Desadostasunak sortu dira Kiroleko Dopinaren aurkako abenduaren 15eko 13/2022 Legearen artikulua bakarraren lehenengo apartatuaren inguruan, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 1. artikuluari 8. apartatua gehitzeari dagokionez. Desadostasun horiek konpontzeko negoziazioei ekitea adostu da.

2.– Lantalde bat izendatzea, Aldebiko Lankidetzaren Batzordeari behar den konponbidea proposa diezaion.

3.– Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraztea, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan xedatutako ondorioetarako, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Lurralde Politikako ministroa,  
ISABEL RODRÍGUEZ GARCÍA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.